

IKASTAROA

Dramagintza Alfonso Sastrekin.

Alfonso Sastre antzerki idazleak dramagintza ikastaroa eskainiko du Donostiako Egiako kultur etxean. Ikastaroa urriaren 13tik 17ra izango da, goizeko 9:00etatik 14:00etara. Izena emateko epea bihar, ostiralean amaituko da. Informazioa: ASKE (Tlf. 943-33 33 83) edota Egiako kultur etxea (943- 29 15 14).

Irrati tailerrak.

Arrasateko Udalak gazteei zuzendutako irrati tailerra antolatu du urritik abendura bitartean. Ikasleek bi aukera izango dituzte: irrati kontrola ikastea edo irratsaioak egiten ikastea (erredakzioa eta lokuzioa). Irrati kontroleko klaseak asteartero izango dira, 19:00etatik 21:15etara, urriaren 7an hasita eta abenduaren 16ra bitartean. Erredakzio eta lokuzio tailerra asteazkenetan izango da, aurrekoaren ordu berean, urriaren 8an hasita eta abenduaren 17ra bitartean. Matrikula 3.000 pezeta kostako da (1.500 pezeta ikasle eta langabetuentzat). Izena emateko jo ezazu Arrasateko Gazte Bulegora (Tlf. 77 00 65).

Euskal tresnak Kepa Junkerarekin.

Infernuko Auspoa du izena Kepa Junkeraren trikitilari bilbotarrak zuzentzen duen eskolak. Bertan, euskal musika tresnak jotzen irakasten dute, besteak beste, trikitixa, alboka, gaita, pandereta, danborra eta txalaparta. Ikastaroak San Inazio, Deustuan, Santutxun eta Kafe Antzokian izango dira. Matrikulazioaz eta bestelakoez informazio gehiago eskuratu nahi baduzu, dei ezazu honako telefono honetara: 94-447 88 40.

LEHIAKETAK

Euskadi Gaztea maketa lehiaketa.

Zabalik jarraitzen du Euskadi Gaztea VII. Maketa Lehiaketan parte hartzeko epea. Euskal Herriko talde eta bakarlariek har dezakete parte, gutxienez hiru kantu jasoko dituen zinta bat aurkeztuz. Diskoa edota kontratu diskografikoa duten taldeek ezingo dute parte hartu. Maketak urriaren 31 baino lehen aurkeztu behar dira honako helbete hauetan: Miramon Pasealekua, 20014 Donostia; Gran Via 85, 1. 48011 Bilbo; Pasaje Postas, 31 01001 Gasteiz.

Komikiak.

Elgoibarko Kokoe taldeak antolatutako komiki lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago urriaren 13ra arte. Aurtengoa bosgarren ekitaldia da, eta irabazleak 100.000 pezeta (4.000 libera inguru) jasoko ditu; bigarrenak 70.000 pezeta poltsikoratuko ditu, eta hirugarrenak 40.000 pezeta. Halaber, euskarazko lanik txukunentzat 30.000 pezeta saria izango da. Lanak Udaleko kultura sailan aurkeztu behar dira.

Emakumearen logotipoa.

Lizarrak Udaleko Ongizate Sailak Emakumearen Batzordea aurkeztutako lehiaketa antolatu du. Irabazleak 40.000 pezeta jasoko ditu. Lanak aurkezteko epea azaroaren 14an amaituko da.

Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketa.

Bilboko Udalak Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketaren XV. ekitaldia antolatu du. Gaia librea izango

han eta hemen

Mina kultur espazioaren inaugurazioa

Bihar zabalduko da Bilbon Mina kultur espazio alternatiboa. Utopia elkarteak bultzaturiko ekimena da Mina, arte zirkuito nagusietatik kanpo dauden kultur adierazpenak laguntzeko asmoarekin sortua. «Museo konbentzionalak guretzat eskurazinak dira, Guggenheimek erakusten duenez. Lapurtu diguten espazio kulturala berreskuratzea da lehentasuna», azaldu zuten Utopiako kideek duela hilabete batzuk orriotan. Geroztik, dirua biltzeko jaialdi bat antolatu zuten, eta bihar inauguratuko dute. Besteak beste, antzerki taldeentzako entsegu lokalak,



erakusketa aretoak eta bestelako hornikuntzak izango dira Mina kultur espazioan.

da, eta edozein nazionalitatetako jendeak har dezake parte. Lanak aurkezteko epea urriaren 31n amaituko da. Helbidea: Bilboko Udala, Kultura eta Turismo Saila, Gabriel Aresti XV. Ipuin Lehiaketa- Erkoreka plaza, z/g 48007 Bilbo. Internet: <http://www.bilbao.net>

Aktoreen Jaialdirako kartela.

Euskal Aktoreen Batasunak lehiaketa zabaldu du Euskal Aktoreen V. Jaialdirako kartela aukeratzeko. Nahi duen artista orok har dezake parte, eta nahi adina orijinal aurkez ditzake. Argazkiz, pinturaz, akuarelaz, collage-z eta beste edozein teknikaz eginiko jatorrizko lanak onartuko dira, 62x88 zentimetro formatuan izanez gero. Kartelean ondoko leloa joango da:

Aktoreen V. Jaialdia-1997
Euskal Aktoreen Batasuna
Lanak aurkezteko epea urriaren 31n amaituko da. Helbide honetan aurkeztu beharko dira: Euskal Aktoreen Batasuna. 546 Posta Kutxa 20080 Donostia. 75.000 pezeta sari bakarra izango da (3.000 libera inguru).

Donostia Hiria literatur sariak.

1998ko Donostia Hiria literatur sarietan parte hartzeko epea zabalik dago urriaren 31ra arte. Lehiaketak bi adar ditu, ipuina eta antzerkia, eta bakoitzean euskarazko zein gaztelaniazko lanak aurkez daitezke, orijinalak eta beste ezein lehiaketatan sartu gabeak baldin badira. Ipuinek gutxienez sei eta gehienez 20 orri izan beharko dituzte. Antzerki lanek, berriz, gutxienez ordu eta laurden eta asko jota bi ordu iraungo dute. Ipuin arloko ira-

bazleak 700.000 pezeta jasoko ditu (28.000 libera) eta antzerki-koak 1.200.000 pezeta. Lanak aurkezteko helbidea: Abuztuaren 31 kalea, 20003 Donostia.

ERAKUSKETAK

Irlanda argazkietan.

Arabako Lurralde Historikoaren Artxiboan Irlandari buruzko argazki erakusketa dago zabalik igandera arte. Bi argazkilariren irudiak bildu dira. Alde batetik, John Duncanenak eta bestetik, Daniel de Chenurenak.

Kubako mende amaierako artea.

Presencias. Arte cubano de un fin de siglo izenburuko erakusketa zabalik dago Donostiako Okendo kultur etxean azaroaren 22ra arte. Astelehenetik ostiralera, arratsaldez ikusi ahal izango da 16:00etatik 20:30etara, eta larunbatetan goizeko 10:00etatik 13:00etara.

Zabor Art.

Zabalik jarraitzen du Donostiako Larrotxene kultur etxean zabor arteari buruzko erakusketa. Idoia Elosegik, Joxan Izak, Juanan Urkolak eta Dolo Navasek hondakinetatik birziklatutako materialekin egindako lanak ikus daitezke.

Vittorio Storaroren argazkiak.

Vittorio Storaro argazki zuzendariaren erakusketa zabalik dago urriaren 12ra arte San Telmo Museoan. Besteak beste, *Apocalypse Now*, *The last night in Paris*, *Flamenco* eta *El cielo protector* filmetako irudiak ikus daitezke, Donostiako Zinemaldiak antolatutako erakusketan. Orduetgia: 10:30etatik 13:30etara eta

16:00etatik 20:00etara. Jai egunetan, 10:30etatik 14:00etara.

HITZORDUAK

Euskal selekzioaren aldeko txirrinda martxa.



Euskal Selekzioaren Aldeko Iritzi Taldeak (ESAIT) txirrinda martxa antolatu du igandera Donostian. Helburua, jakina, Euskal Herriko selekzioa sortzeko beharra gizarteratzea da. Martxa goizeko 11:00etan abiatuko da Anoetako estadiotik eta bertan amaituko da hamasei kilometro egin ondoren. Antolatuzaileek kaskoa eramatea gomendatzen dute. Amaieran trikitilariak eta bertsolariak izango dira.

IKUSKIZUNAK

Bizkaiko jota eta arin-arinak.

Bilboko Kafe Antzokian dantza emanaldia izango da gaur arratsan. Izan ere, Arratia, Dima eta Zeberioako erara dantzaturiko jota eta arin-arinak izango dira ikusgai Andra Mari dantza taldearen eskutik. Emanaldia 20:30etan hasuko da, eta ondoren Aitzol Mujika kantautore bergararrak kontzertua eskainiko du.

Frankenstein dantzan.

Ananda Dansa dantza taldeak Frankenstein izeneko ikuskizun

ZINE ETA ANTZERKI AGENDA

Zine-klubak

- ▶ **Tod Browning zikloa:** gaur, bihar eta etzi, *The show* (1927, jatorrizko bertsioan) eta *Freaks* (1932, jatorrizko bertsioan). Bilboko Arte Ederretako Museoan, 17:00etan.
- ▶ *El secreto de la isla de las focas* (John Sayles): asteartean, Bilboko Indautxuko El Carmen aretoan, 19:45etan. Jatorrizko bertsioan.
- ▶ *La buena estrella* (Ricardo Franco): asteazkenean, Barakaldo antzokian. 20:00etan eta 22:30etan.

Antzerkia

- ▶ **Gasteizko XXII. Nazioarteko Antzerki Jaialdia:** gaur eta bihar, Fila Siete taldearen *El avaro*, Principal antzokian, 20:30etan; igandean, The Richard O'Brien's taldearen *Rocky horror show*, Principal antzokian, 20:30etan.
- ▶ *Canciones animadas* (Mariano y Angel): ostiralek igandera bitartean, Donostiako Lugaritz kultur etxean. Emanaldiak 20:30etan.
- ▶ *Behin bazen* (Kukubiltxo): haur antzerkia. Urriaren 5etik 19ra Donostiako Antzoki Zaharrean.

gotiko-musikala aurkeztuko du Barakaldo antzokian, bihartik igandera bitartean. Taldeak Mary W. Shelley-ren Frankenstein hartu du oinarri gisa ikuskizunerako.

LANPOSTUAK

Dokumentalista.

Nafarroako Parlamentuak dokumentalista lanpostu bat ateratu du lehiaketara. Ingeniari tekniko industrialia edo arkitekto teknikoak izatea eskatzen da. Izena emateko epea urriaren 12an amaituko da. Oinarriak: 1997ko irailaren 12ko Nafarroako Buletina.

AIZU! Zure iragarkiak, mezuak, gutunak edo galderak hemen agertzea nahi baduzu, deitu 943-300222 telefonora edo bidali fax honetara: 943-300255.

